

2



2

3

Jaialdia
POLTSIKO ANTZERKIA

Jaialdia POLTSIKO ANTZERKIA

Kultur etxeek **Poltsiko Antzerkia** jaialdiaren 32. edizioaren balorazio positiboa egin zuten, antolaketari zein herritarren erantzunari dagokienez. **Maiatzaren 4tik 21era** ospatu zen, eta **2.700 ikusle inguru** izan ziren formatu txikiko antzezlanek gozatzen.

Entretenezko eta harritzeko helburuz, 2023ko edizioko programazioak antzerkia, umorea, magia, bentrilokia, mentalismoa, monologoak eta musika ekarri zizkigun. Edizio guztietan bezala, gainera, bi hizkuntza ofizialen eta gizon eta emakumeen presentzia parekoak izan zitezten saiatu ziren antolatzaileak.




Albina Stardust & Divina Comedia,
Covent Garden Cripta © Iñaki Rubio



Las Couchers, Centro Extremeño © Iñaki Rubio



2023
POLTSIKO
ANTZERKIA
TEATRO
DE BOLSILLO



Kaitin Allende, Ohiane Perea, Iratxe Ibarra, Vía Fora © Iñaki Rubio



Tartean Teatroa, Etxarriene © Iñaki Rubio

238

Guztira, 15 ikuskizun eskaini zituzten 15 konpainiak; 33 emanaldi egin ziren, 17 euskaraz eta 16 espainieraz. 15 konpainia horietatik sei emakumez osatutakoak ziren, beste sei gizonez osatutakoak, eta hiru konpainia misto ere egon ziren. Hiriko 25 espazio ezberdinetan eskaini zituzten emankizunak.

Konpainiek eskerrak eman zizkieten Donostia Kulturari eta publikoari. Donostia Kulturari, gaur egungo koiunturan sektorearen eta jaialdiaren aldeko apustua egiten jarraitzeagatik; eta publikoari, ikuskizunetara ilusioz joaten jarraitzeagatik. **Poltsiko Antzerkiak** publiko leiala du, edizioz edizio Donostiako kultura-programazioan dagoeneko klasiko bat bihurtu den jaialdi honetan berriro topo egiten duena.



Kris eta Krash, Scanner © Iñaki Rubio



Aroa Berrozpe, Avenue © Iñaki Rubio

